

Europaren etorkizunak kultura eta, bereziki, hizkuntza-aniztasunaren onespena eskatzen du. Aniztasun hau bestalde, handituz doa Europako Batasuna hedatzen den neurrian, batik bat estatu-kide berriak biltzerakoan, bai eta Ekialdeko Europarekiko interes gero eta handiagoa dela medio. Europako hizkuntza eta kultura desberdinen ugaritasunak erantzun eraginkorrek bilarazten dizkigu egungo gizarteek duten erronka handienetakoari aurre egiteko, gizateriaren etorkizuna bera baldintzatuko baitu: alegia, herrialde beraren barruko nahiz herrialde desberdinen arteko kultura, hizkuntza, erlijio eta etnia desberdinen elkarbizitza baketsua, elkar ezabatu orde elkarrekiko aberastasun iturri izan daitezten.

MERCATOR SAREA EUROPAKO BATASUNEKO HIZKUNTZA ERREGIONAL EDO MINORITARIOEN ZERBITZURAKO TRESNA

Hervé Guillorel

Chercheur au C.N.R.S.

Université de Paris X - Nanterre

Itzultzailea: Bego Montorio

Hizkuntz aniztasuna zatiketa faktore gisa agertu da luzaroan, hizkuntza, izan ere, estatu eta nazioetako batasun-elementu funtsezkoa izan baita. Estatu irabazleek, sarritan, lurralde konkistatuetan beren hizkuntza ezartzeko joera izan dute, eta oso paper garrantzitsua eman izan diote barne nahiz kanporako nortasun nazionalaren eraiketan. Europaren egungo eskualdekatze edo zatikatze prozesuek agerian jarri dute, berriz ere, hizkuntz faktorearen nagusitasuna. Baina hala ere, hizkuntz aniztasuna Europaren kultur aberastasuntzat jo behar da. Eta are argiagoa da hau estatu baten eraikuntzarekin loturik egoteko zoria izan ez duten hizkuntzen kasuan, hori dela eta maiz diskriminazio-neurriak jasan behar izan baitituzte eta, ondorioz, egoera periferikora murriztuak gertatu.

Gaur egun estatuak, eta bereziki nazioarteko erakundeak, gero eta kontzientzia argiagoa hartzen ari dira hizkuntza hauek hobeto ezagu-

tzeko, errespetatzeko eta hauen garapena bermatzeko beharraz. Bilakaera honetan garrantzi handia izan dute hizkuntza hauek beren hiritasun eskubidea berreskuratu eta desagertu ez daitezen aspalditik borrokan ari diren elkarte ugariak.

Hizkuntza hauen *dinamikak*, faktore politiko, ekonomiko eta ideologikoen sakonki eraginda, hizkuntzok izendatzeko dauden arazoak azaltzen ditu: hizkuntza minoritarioak, hizkuntza minorizatuak, he-
dadura txikiko hizkuntzak, hizkuntza erregionalak, hizkuntza autoktonoak, hizkuntza alogenoak: hauetako izendapen bakoitzak arlo berezia eta ikuspegi jakin bat agertzen ditu.

Hiru kategoritan bana ditzakegu hizkuntzok: estatu bateko hizkuntza ofizial eta maioritaria ez direnak eta komunitate bakar batek (esaterako bretoiera Frantzian edo sardiniera Italian) edo estatu desberdinetako hainbat komunitatek (esaterako albaniera Grezian eta Italian) erabiltzen dituztenak; komunitate batek edo gehiagok erabili eta beste estatu batean gutxienik ofizial eta maioritarioak direnak (esaterako daniera Alemanian eta Danimarkan); eta azkenik komunitate batek edo gehiagok erabili eta estaturen batean ofizialak direnak maioritarioak izan gabe (esaterako galesa Erresuma Batuan edo katalana Espainian).

Europako Kontseiluko Agirian gehien bat erabiltzen den terminologia «*hizkuntza erregional edo minoritaria*» da: testu honi esker hizkuntza hauen defentsa eta balioztaketa bermatu ahal izango dira Europako Kontseiluko kide diren estatu guztietan. Gaur egun estatu hauetako 13k sinatu dute Agiria eta abiatua da baieztapen parlamentarioarako prozesua.

Hizkuntza hauek erabiltzen dituzten komunitateek, berezitasunen gainetik, indarrak bildu beharra dute ideiak elkartrukatu, ahalik eta jende gehiagorengana iritsi eta ikuspegi europarraren barruan elkarlana egiteko.

Mercator sarearen xedea Europako Batasunako hizkuntza erregional edo minoritarioen egungo egoera hobeto aztertu eta ezagutaraztea da. Europako Komunitateko Batzordeak sortu zuen 1987an. Mercator izena aukeratu zen XVI. mendeko kartografo ospetsuak bere mapetan toponimoak jatorrizko hizkuntzetan jaso zituen lehenetakoak izan zelako, hizkuntz aniztasunarekiko begirunea agertuz. Mercator sareak lau zentro espezializatu ditu, bereziki garrantzitsuak diren lau alor lantzeko: hizkuntz inbentaria, hezkuntza, komunikabideak eta zu-

«Are argiagoa da hau estatu baten eraikuntzarekin loturik egoteko zoria izan ez duten hizkuntzen kasuan, hori dela eta maiz diskriminazio- neurriak jasan behar izan baitituzte eta, ondorioz, egoera periferikora murriztuak gertatu»

«Hizkuntza hauek erabiltzen dituzten komunitateek, berezitasunen gaineratik, indarrak bildu beharra dute ideiak elkartrukatu, ahalik eta jende gehiagorengana iritsi eta ikuspegi europarraren barruan elkarlana egiteko»

zenbidea; izan ere beharrezkoa baita hizkuntza hauek hobe ezagutu, hezkuntz sisteman eta komunikabideetakoan duten tokia aztertu eta beren egoera juridikoa ikertzea. Azkenik, beharrezkotzat jo da komunitate etno-linguistikoak ikuspegi pluridisziplinarretik aztertzea, hizkuntza hauen arazoa bere osotasunean eskuratu behar dela agertze-ko.

Aipatu lau zentroyen arteko koordinazioa Hizkuntza Gutxituen Aldeko Bulego Europarrak bermatu du 1994. urterarte; azpimarratu behar da erakunde honek betekizun garrantzitsua izan duela Europako Batasuneko hedadura txikiko hizkuntza autoktonoen, bai eta horien kulturen zaintza eta bultzadan, eta hasiera hasieratik atxiki zaiola Mercator sareari. Iragan 1994az gerotik, Europako Batzordea (22. Zuzendaritza Nagusia: Hezkuntza, Heziketa, Gazteria) arduratu da koordinazio honetaz. Lau zentrootako iharduerak ondoren azaltzen dira.

Azterketa txostenen tankerako ekarpenez gain, Mercator zentroek informazio-hedaketarako zerbitzuen bitartez hartzen dute parte Europaren eta gizateriaren ondarea diren hizkuntz komunitateen aberastun kulturala ezagutarazteko eta errespetarazteko lanean.

Europako Batasuneko kide diren estatuetan hitz egiten diren hizkuntza erregional edo minoritarioak:

België-Belgique (Belgika) deutsch/alemana lëtzebuergesch/luxemburgera	galego/galiziera occitan(aranès)/okzitaniera (aranesa)
Danmark (Danimarka) deutsch/alemana	France (Frantzia) brezhoneg/bretoiera català/katalana corsu/kortsikera deutsch/alemana euskara occitan/okzitaniera lëtzebuergesch/luxemburgera nederlands/holandera
Deutschland (Alemania) dansk/daniera friisk/frasch/iparfrisiera seeltersk/ekialdeko frisiera serbski/	Hellas (Grezia) arbëror/albaniera arbanita armina/ pomak/ slavo-makedonsk/slaviar-maze-
Eire (Irlanda) gaeilge/gaelikoa	
España (Espainia) català/katalana euskara	

doniera
türkçe/turkiera

Italia (Italia)
arbëror/albaniera
català/katalana
deutsch/alemana
français/frantsesa
furlan/friulera
helliniki/grekeria
hrvatski/kroaziera
ladin/ladinoa
occitan/okzitaniera
sardu/sardiniera
slovensé/esloveniera

Luxembourg (Luxemburg)
lëtzebuergesch/luxemburgeta

Nederland (Holanda)
frysk/frisiera

Österreich (Austria)
tcsky/tsekiera
hrvatski/kroaziera
magyar/hungariera
slovensko/eslovakiera
slovenscina/esloveniera

Suomi (Finlandia)
sami/laponiera
svenska/suediera

Svenska (Suedia)
sami/laponiera
suomi/suomiera

United Kingdom (Erresuma Batua)
cymraeg/galesa
gaelige/gaelikoa
gàidhlig/Eskoziako gaelikoa
kernewek/kornikera

«Mercator sarearen xedea Europako Batasuneko hizkuntza erregional edo minoritarioen egungo egoera hobeto aztertu eta ezagutaraztea da»

Zerrenda hau Europako Batasunari baino ez dagokio: ez ditu ez kide diren estatuetako hizkuntza maioritarioak, ez hizkuntza hauen barruko aldaerak, ez eta Europatik kanpoko kreolerak eta hizkuntza autoktonoak aipatzen. Zerrenda hau ez da exhaustiboa, hizkuntz praktikak izendatu eta sailkatzeko erabil daitezkeen hizkuntz eta politika irizpideen nahasketa handia baita. Ondorioz, zerrenda hau ez da inolaz ere ofiziala eta ezin du Europako Batasuna behartu.

MERCATOR-HEZKUNTZA

Arduraduna: Durk Gorter, koordinatzaile nagusia.
Helbidea: Fryske Akademy, Postbus 54, NL-8900 AB Ljouwert/Leeuwarden.
Tfna: +31-58-13 14 14 Fax: +31-58-13 14 09
Iharduerak: «Mercator-Hezkuntza» hizkuntza minoritarioen eta horien bitarteko irakaskuntzaz arduratzen da Europako Batasuneko maila guztietan. Hiru arlo nagusi hartzen dute bere iharduerak: datu-bilketak, datu-banku baten sorrera eta mantenimentua eta datu hauen zabalketa. Hedadura txikiko hizkuntzei buruzko argibideak eskaintzen dituen Erakundeetako *Mercator Gida* argitaratzen du.

MERCATOR-ZUZENBIDEA ETA HIZKUNTZ LEGERIA

Arduradunak: Aureli Argemí i Roca (koordinatzailea) eta Oriol Ramon i Mimó (zuzendaria).

Helbidea: Ciemen, Pau Claris, 106, 1er 1a E-08009 Barcelona

Tfna: + 34-3-302 01 44 Fax: +34-3-412 08 90

Iharduerak: «*Mercator-Zuzenbidea eta Hizkuntz legeria*», Europako hizkuntz arazoei buruzko alor juridiko guztietako datu-basea ezarri, aztertu eta zabaltzen du. Mercator: *Dret i Legislació Lingüistics* bi-hilabeteak argitaratzen du

MERCATOR-KOMUNIKABIDEAK

Arduradunak: Ned Thomas eta Elin Jones.

Helbidea: Prifysgol Cymru (University of Wales), UK-Aberystwyth, Dyfed SY23 3 AS

Tfna: +44-1970-62 25 33 Fax: +44-1970-62 21 90

E-mail: merc@aber.ac.uk

Iharduerak: «*Mercator-Komunikabideak*», hedadura txikiko hizkuntzak erabiltzen dituzten Europako Batasuneko komunikabideei buruzko argibideak bildu, kudeatu eta hedatzea du helburu (irratia, telebista, egunkariak, aldizkariak, argitalpen multimedialak). Komunikabideetako *Mercator Gida* (1. liburukia 1993an) eta *Mercator Media Forum* aldizkaria (1. zenbakia 1995eko otsailan argitaratua) argitaratzen ditu.

MERCATOR-IKERKETA OROKORRAK ETA HIZKUNTZALARITZA

Arduradunak: Henri Giordan eta Hervé Guillorel.

Helbidea: Henri Giordan, 40 rue des Aulnes, F-92330 Sceaux

Tfna/Fax: +33-1-43 50 20 04

E-mail: giordan@u-paris10fr

Hervé Guillorel, 37 Bd Emile Zola F-92000 Nanterre

Tfna/Fax: +33-1-40 97 76 43

E-mail: herveg@u-paris10.fr

Iharduerak: Frantziako zentroak Europako Batasuneko hizkuntza erregional edo/eta minoritarioen inbentaria egiten du, hala nola gutxiengo etnolinguistikoen azterketa pluridisziplinaria erraztuko duen datu bibliografikoen basea sortu.

Bibliografia:

HIZKUNTZA GUTXITUEN ALDEKO BULEGO EUROPARRA, 1993, *Europar Komunitateko hizkuntza gutxituen gida-liburua*, Dublin, 65-62 orr.

EUROPAR KONTSEILUA, 1993, *Hizkuntza gutxituen Europar Karta*, Estrasburg, 63 orr.

EUROPAR KONTSEILUA, 1994, *Europako hizkuntza gutxituen egoera: Delegazio nazionalen kontribuzioa*, Estrasburg, 153 orr.

DAVIES, J., 1993, *Mercator Media Gida 1.volumena*, Cardiff, University of Wales Press.

GIORDAN, H., 1992, *Europako gutxiengoak: hizkuntz eskubideak eta giza eskubideak*, Paris, 685 orr.

ITALIAR ENTZIKLOPEDIA INSTITUTUA, 1986, *Europar Komunitateko nazioen hizkuntz gutxituak: —Luxemburgo, Europar Komunitateko argitalpen ofizialen bulegoa-Europar Komunitateko Komisioa— Erreferentzi zenbakia. CB-44-85-816-FR-C.*

JENNIGES, W., 1993, *Europar Komunitateko hizkuntza gutxituen bibliografi berezia* Dublin, Brusela —Hizkuntza Gutxituen Aldeko Bulego Europa-rra—, XIV-120 orr.

MERCATOR -HIZKUNTZ ESKUBIDE ETA LEGISLAZIOA -MERCATOR BULETINA. MERCATOR MÉDIAS -MERCATOR MEDIA FORUM ALDIZKARIA. 1. zenbakia 1995 otsailean.

SIGUAN, M., 1990, *Europar Komunitate Ekonomikoko hizkuntz gutxituak: Espainia, Portugal eta Grezia, Brusela, Luxemburgo*, Europar Komunitateko argitalpen ofizialen bulegoa, 65 orr.

TJCERDSMA (R.S.), 1994, *Hizkuntza gutxituen erakundeei buruzko informazioa eskaintzen duen Mercator Gida*. Ljouwert/ Leeuwarden: Mercator-Education/Fryske Akademy, 2 tomo.